



**EMMANUELLE • Frantzia**

Audrey Diwan (zuzendaria, gidoilaria)  
Noémie Merlant, Will Sharpe, Chacha Huang, Jamie Campbell (aktoreak)

SERGIO BASURKO

Audrey Diwanen *Emmanuelle* ez da izen bereko eleberri ezagunaren ego-kitzapena, are gutxiago 1974an egin dako film luze erotikoaren bertsioa; izan ere, zuzendariak prentsurrekoan aitortu duenez, "ez dut filma osorik ikusi ere egin". Diwanek pertsonaia hartu eta mitoa irauli du, gaurko eguna egokitzeko.

*Emmanuelle* (Noémie Merlant) us-tekabeko sexu-harremanak izatera ohitura dagoen emakumea da, eta horregatik ez du inolako atseginik sentitzen. Egun batean, lan egiten duen luxuzko hotelen kateak Hong Kongera bidaltzen du, bertako establezimendu baten diru-sarreren jaitsiera aztertzen, baina iristen denean bikain funtzionatzuen duen hotel bat aurkitzen du. Dena dela, hoteleko zuzendaria (Naomi Watts) kaleratzeko aitzakia bat bilatu behar du eta, han dagoen bitartean, Lee Jae-Yong (Will Sharpe) ezagutuko du: errutina misteriootsuak dituen exekutibo erakargarria. *Emmanuelle* harekin obsesionatua eta atzetik joaten hasiko zaio.

"Jatorrizko *Emmanuelle*n 20 minuto ikusi nituenean sentitu nuen ez nintzela film horren publikoa", dio zuzendariak. "Ekoizleek liburua eman zidaten, eta jakin-minez irakurri nuen, Interneteko pornoaren garaian erotismoaren gramatika zinematografikoa erabil ote genezakeen nire artean pentsatuz". Zentzu horretan, protagonistak irrikatzen duen plazera "ez da soilik sexuala". "Nola eman dezakegu gure onena hainbeste eskatzen zaigunean? Non dago plazera, hurrela amore eman behar badugu?". Audrey Diwanen helburua ikuslea "emakume horren ariman eta gorputzean sarraraztea da, sexu-bizitzara itzultzeak zer esan nahi duen esperimentatu dezan".



Sail Ofiziala abiarazi duen *Emmanuelle* filmeko protagonistak.

**Updating eroticism for the 21st century.**

The French director, Audrey Diwan confessed that she had only watched 20 minutes of the original *Emmanuelle* when she felt that she wasn't its target audience. However, the producers gave her the book to read and she began to ask herself whether in this modern age of internet porn, we could still use a language based on the cinematic grammar of eroticism. In this respect, the pleasure that the main character yearns for is not just sexual. "How can we give the best of ourselves when so much is asked of us? Is there room for pleasure if we have to perform like this." Audrey Diwan's aim was for the audience to get inside the mind and the body of this woman so that they can feel what she feels.

The star of the film, Noémie Merlant, admitted that a lot of people had warned her that it could be dangerous to accept a role that Silvia Kristel had never managed to shake off. However, she felt that there really is something to be addressed here. "It's really interesting to show women who look for sex without being in love. We have the right to look for pleasure without love."

## Maitasunik gabe plazera bilatzeko eskubidea

Emmanuellen pertsonaia plazer galduaren bila dabil, eta horretarako zuzendariak emakumezkoaren bilaketa intimoari begiratzen dio, be-laualdi jakin baten iruditeria kolektiboan oraindik orain bizirik dirauen 1974ko pertsonaia zirikatzailletik al-denduz. "Gaur egungo mundua ez da jada garai batekoa", adierazi du Diwanek.

Desioa, desio eza eta batere argi islatzen ez diren iraganeko hainbat

mamu jorratzen ditu pelikulak. Alabaina, Emmanuellen begiradaren atzean ezkutatzen dena "bakarda-dea da. Sexu-enkontru hutsalez betetzen saiatzen den bakardade mugagabea", azaldu du zuzendariak.

*Emmanuelle* berriak ez du sexu esplizituko eszenarik, nahiz eta protagonista sarri agertzen den biluzik. Diwanek zehaztu du urratzailea izan nahi duela eta ez dela emakumeentzako film bat bakarrik. Bestalde, Noémie

Merlantek aitortzen du bere inguru jendeak ohartarazi ziola Silvia Kristelen karrera markatu zuen papera onartzeko arriskuaz, Emmanuelleren-gandik ezin izan baitzen inoiz libratu. "Beldur hori bazegoen, merezi zuen istorioa berriro kontatzea. Oso interesgarria da nahitaez maiteminduta sentitu gabe sexu-istorioak bilatzen dituzten emakumeak erakustea. Maitasunik gabe plazera bilatzeko eskubidea dugu".

Premio Nacional de Cinematografía 2024

María Zamora

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA | icaa

icaa.es